

ZEINU HIZKUNTZAKO INTERPRETEAK

- 1.** Ikastetxean esku hartzen duten irakasleekin eta gainerako profesionalekin lankidetzan aritzea, entzumen-desgaitasuna edo gor- itsutasuna duten ikasleei hezkuntza- erantzuna emateko, interpretazioari lotutako lan-gaitasunak oinarri hartuta.
- 2.** Irakasleekin koordinatzea gai-zerrendaren aurrerapenean eta irakaskuntza-ikaskuntza jardueretan (hiztegi teknikoa, kontzeptu akademikoak, helburuak, oinarritzko jarduerak...).
- 3.** Autonomia garatzen laguntzea eta entzumen-desgaitasuna edo gor-itsutasuna duten ikasleei curriculumerako sarbidea eta hezkuntza-komunitateko eragile guztiekiko komunikazioa erraztea, ahozko hizkuntzatik zeinu-mintzairara interpretatuz eta alderantziz.
- 4.** Ikaslearen Norbanako Jarduera Planean eta urteko memorian laguntzea, ikastetxean, ikasgelan eta ikaslearekin hartutako erabakiak islatuz, bai eta bere lanbide- gaitasunari dagozkion beste dokumentu edo txosten tekniko batzuk ere.
- 5.** HPBen aholkulariekin eta lurraldeko entzumen-desgaitasunari erantzuteko koordinatzailearekin koordinatzea, artatzen dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko.
- 6.** Irakasle-taldearen sentsibilizazioan eta gaikuntzan laguntzea ikasle horiei ematen zaien hezkuntza-erantzunean, ezagutza profesionaletik orientabideak emanez (antolaketa- edo metodologia-neurri eta - egokitzapenei buruz, edukiei buruz, baliabideei buruz, laguntza-materialei buruz, etab.).
- 7.** Gidari eta interpretearen lanari dagozkion jarduerak egitea ikasle gor-itsuekin.
- 8.** Lanpostuari dagokion beste edozein.